

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko irailaren 18tik 24rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/09/21

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - EBAZPENA, 2021eko uztailaren 22koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratzeko, gordailutzeko eta argitaratzeko xedatzen den Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpekoak diren eskola-garraioko laguntzaileen eta jolastokiko zaintzaileen hitzarmen kolektiboa ikasturte hauetarako: 2016-2017, 2017-2018, 2018-2019, 2019-2020, 2020-2021, 2021-2022, 2022-2023 (Hitzarmenaren kodea: 86002445012005). **4822 xedapena - 29 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/09/21

- **TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN MINISTERIOA.** – **Ondare naturala eta biodibertsitatearena.** - TED/980/2021 Araua, irailaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen den Babes bereziko araubideko espezie basatien zerrenda eta Arriskuan dauden espezieen Espainiako katalogoa garatzeko otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuaren eranskina. **15244 xedapena - 5 or.**

2021/09/22

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBIKOAREN MINISTERIOA.** – **Ontzi pneumatikoak eta erdi-zurrinak.** - 807/2021 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten den, erabiltzen diren ontziei dagokienez, pertsonen eta merkantzien legez kanpoko trafikoaren aurka borrokatzeko zenbait neurri hartzen dituen urriaren 26ko 16/2018 Errege Lege-dekretuaren artikulua bakarreko 3. apartatuaren f), g), h) eta i) letretako ontzi pneumatiko eta erdi-zurrunen kontrolerako Erregelamendua, eta aldatzen den Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzen duen otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretua. **15312 xedapena - 14 or**

- **Antolamendua.** - 808/2021 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, ministerio-sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duen urtarilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. 15313 xedapena - 4 or

2021/09/24

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBIKOAREN MINISTERIOA.** - **Abalak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2021eko irailaren 20koa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den 2006ko otsailaren 28koa, kreditu-erakundeek eta elkarren bermerako sozietateek emandako abalak eta interesdunek Zerga Administrazioaren aurrean aurkeztutakoak NRC kode baten bidez baliozkotzeko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen. 15450 xedapena - 6 or
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.** - **Drogak.** - Akats-zuzenketa, honako errege dekretu honena: 740/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, zeinaren bidez arautzen diren Adikzioei buruzko Estrategia Nazionala eta haren ekintza-planak; eta lau errege dekretu aldatzen diren, ministerioen antolamendu berrira egokitzeko Drogei buruzko Plan Nazionalako kide anitzeko zenbait organoren osaera eta ministerioaren eskumena, Drogei buruzko Plan Nazionalak emandako merituen ordenarekin lotuta. 15451 xedapena - 1 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/09/18

- **XEDAPEN OROKORRAK.** - **LEHENDAKARITZA.** - 38/2021 DEKRETUA, irailaren 17koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak testu bateginean jaso, eguneratu eta zehaztekoa. 4795 xedapena - 5 or.

2021/09/22

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 5/2021 FORU DEKRETU-ARAU, irailaren 7koa, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkarien aurrerakin likido bat ezartzen duena. 4837 xedapena - 6 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/09/24

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1558/2021 FORU AGINDUA, irailaren 20koa. Honen bidez, 560 ereduia «Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia. Autolikidazioa» onesten da, eta hura aurkezteko era eta prozedura ezartzen dira. **I-758 xedapena - 8 or.**
- **Lan eta Enplegu Saila.** - Ebazpena, 2021eko irailaren 15koa, Bizkaiko lurraldeko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariarena, 2022 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren tokiko eta lurraldeko festen egutegia ezartzen duena. **III-190 xedapena - 6 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/09/20

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA. - Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.** - EBAZPENA 2021eko irailaren 14koa, Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, 2022. urterako Gipuzkoako lurraldeko tokiko jaiegunen egutegia ezartzen duena. **6017 xedapena - 4 or.**

2021/09/24

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 518/2021 Foru Agindua, irailaren 18koa, zeinaren bidez onesten baita kooperatiben sustapen eta heziketa funtsaren erabilerari 2021ean aplikagarri zaion interpretazioa, COVID-19aren ondorioak arintzeko. **6114 xedapena - 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/09/24

- **GOMENDIOAK.** – Kontseiluaren 2021/1712 (EB) Gomendioa, 2021eko irailaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen den funtsezkoak ez diren EBrako bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzko Kontseiluaren 2020/912 (EB) Gomendioa. **L 341/1 xedapena - 4 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO